



## **Arartekoaren ebazpena, 2010eko ekainaren 8koa, Donostiako Kontxako hondartzan 2010 denboraldirako eguzkitakoak murrizteari buruzkoa.**

### Aurrekariak

Donostiako Kontxako hondartzan eguzkitakoan (eguzki-oihalak eta itzalkinak) erabiltzaile den pertsona talde batek, haietako biren ordezkari gisa, erakunde honengana jo zuen 2010eko martxoaren 31n. Xedea kexa bat aurkeztea zen, hiri horretako udalak hartutako erabakiaren aurrean. Erabakiak nabarmenki murriztea ekarri zuen eguzkitako kopurua (gutxi gorabehera erdira, kexa aurkeztu dutenek diotenaren arabera), zozketa bidez esleituz onartutako eguzkitakoak haien erabiltzaile diren pertsonen artean.

Kexa onartuta, apirilaren 8an bidalitako idazki bidez eskatu egin genion Donostiako Udalari beharrezko informazioa eta agiriak bidal ziezazkigula, azaldutako gaia aztertu ahal izateko. Eskatutako informazio eta agiri horiek aipatutako hilabeteko 26an jaso ziren.

Kexaren arrazoiak, Administrazioaren jarduna eta auzian ageri den dokumentazio zabala aztertu dugu eta arrazoiak baloratu ditugu, horretarako gure prozedura eta ordenamendu juridikoko parametroei jarraiki.

### Gogoetak

1. Lehenik eta behin, adierazi egin behar dugu hondartzak itsaso eta lurreko jabari publikoko ondasun bat direnez, eguzki-oihalen eta itzalkien erabilera pribatiboa, aldi baterakoa izanda ere, atxikita dagoela Ingurumen eta Landa eta Itsas Ingurunearen Ministerioaren kasuan kasuko baimena eskuratzeari.

Bigarrenik, aintzat hartu behar da indarrean dagoen Kostaldeein buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legea (KL). Bertan, printzipioen artean, finkatu egiten da hondartzen erabilera publikoa bermatzearena. Horretarako, neurri eta muga ezberdinak arautzen dira, ondasun publiko horien inolako ustiapen baimenik ezin izan dezan printzipio horren izaera aldatu.

Gauzak horrela, aurreko bi premisak aintzat hartuta, Euskal Herriko Itsasertz Mugarteko Gipuzkoako Itsasertzetako Zerbitzu Probintzialak txosten bat egin zuen Kontxako eta Ondarretako hondartzetan denboraldiko zerbitzuak baimentzeko. Txostena 2009ko abenduaren 29koa zen. Bertan esaten denaren arabera, bi hondartzetan saturazio maila altua ikusi da denboraldiko zerbitzuei dagokienez; ondorioz, udako zerbitzu multzo horretarako onartutako egokitzapen maila eta gehieneko kopurua neurtzeko betebeharra finkatzen du, araudiak ezartzen duena gorabehera, betiere.





Hondartzetan jartzen diren denboraldiko zerbitzu guztien baimenerako mugen araudia finkaturik dago Kostaldeein buruzko Legean (jada aipatu duguna) nahiz hori garatzeko Araudian, 1989ko abenduaren 1ekoa hura (KA). Azken arau horrek, hemen interesgarri zaizkigun alderdietan, zera dio:

**Artículo 67. 1.** *La ocupación de la playa por instalaciones de cualquier tipo, incluyendo las correspondientes a servicios de temporada, no podrá exceder, en conjunto, de la mitad de la superficie de aquélla en pleamar. (Artículo 33.4 de la Ley de Costas).*

*2. La distribución de tales instalaciones se establecerá por la Administración autonómica competente en materia de ordenación del litoral o, en su defecto, se realizará de forma homogénea a lo largo de la playa.*

**Artículo 70.** *En defecto de planeamiento, la ocupación de la playa por instalaciones de cualquier tipo, incluso las correspondientes a servicios de temporada, deberá observar, además de lo indicado en los artículos anteriores, las siguientes determinaciones:*

*a. Se dejará libre permanentemente una franja de seis metros, como mínimo, desde la orilla en pleamar.*

*b. Las longitudes de los tramos libres de ocupación deberán ser, como mínimo, equivalentes a las que se prevé en explotación, sin que estas últimas puedan superar los 100 metros, salvo que la configuración de la playa aconseje otra distribución.*

*c. Las zonas de lanzamiento y varada se situarán preferentemente en los extremos de la playa o en otras zonas donde se minimice su interferencia con los usos comunes a que se refiere el artículo 59.1 y en conexión con accesos rodados y canales balizados."*

Bi artikuluko hauen azterketa bateratutik ondorioztatu egiten dira hondartzetan denboraldiko zerbitzuek eduki behar dituzten ezaugarriak, hain zuzen ere:

- Horrelako instalazioekin okupatzen den hondartza azalera ezin izan ahalko da itsasgoran hondartzak duen azaleraren erdia baino gehiago.
- Autonomia Erkidegoan ez dagoenez itsasertza antolatzekeko plan bat, instalazioen banaketa homogeneoa izan behar da hondartza osoan.
- Instalazioen homogeneotasun horrek zera esan nahi du: okupazioa % 50etik gorakoa izango ez dela errespetatzeaz **gain**, jarraian adieraziko diren alderdiak ere bete behar direla.
  - Itsasgoraren lerrotik gutxienez sei metroko zerrenda ez erabiltzea.
  - Okupatutako tartekak, gehienez ere, 100 metrokoak izango dira, tarte aske baliokideekin txandakatuz.





2. Hondartzan dagoen tokiaren eta sasoiko instalazioen zenbaketa finkatzeko abiaburua itsasgoraren lerroa definitzea da. Aitzitik, hondartzak estatikoak ez direnez eta, aldiz, bizitzan zehar aldaketak jasaten dituztenez, bai itsasoaren mailan, bai hondarraren kokalekuan, beharrezkoa da aipatutako elementu horiek aztertzea eta itsasoak hondartzaren profilarekin bat egiten duela uste daitekeen puntua mugatzea. Kosta Zerbitzuaren azterlan teknikoak, Donostiako Udalak bidalitako idazkiarekin batera doana, xehatu egiten du aurreko irizpideak Kontxako hondartzan aplikatzearen ondorioak zeintzuk diren, izan ere, hura izan da eguzkitakoen murriztapen adierazgarriaren ondorioak jaso dituen.

Itsasgoraren lerroa hainbat aldagai, gaian aditu direnek definitutakoak, sakontasunez aztertzearen ondotik lortzen da. Gauzak horrela, teorikaren batez besteko itsasgora lerroa izena duen horretara iristen da, hain zuzen ere geratzen den hondartza lehorraren azalera (itsasgoren helmenetik kanpo geratzen dena uneoro, eta ez inguruabar jakin batzuk agertzeagatik olatuen helmenetik kanpo geratzen dena). Bertatik abiatuz, zerbitzuak baimentzeko aintzat hartu beharreko gainerako aldagaiak finkatzen dira. Aipatu berri diren irizpideak aplikatetik hurrengo magnitudeetara iristen da:

- Hondartza lehorraren azalera: 11.594,24 m<sup>2</sup>.
- Aurreko azaleraren % 50a: 5.774,62 m<sup>2</sup> da okupazioek gainditu ezin izango duten gehieneko azalera.
- Teorikaren batez besteko itsasgora lerroaren gainean atzeraemanguneko 6 metro aplikatetik irteten den hondartza aprobetxagarriaren azalera 673,30 metroko luzeraren baliokidea da.
- Ustiapeneko 100 metro bakoitzeko beste 100 metro askeko kopurua errespetatu behar dela aintzat hartuta, irizpide horretatik ondorioztatu egiten da -luzera zuzenari dagokionez- eguzkitakoak instalatzeko gehieneko ustiapen azalera ez dela izan behar 336,65 metroko luzerakoa baino handiagoa.

Horri dagokionez, adierazi egin behar dugu, gaian eskudun diren teknikariek finkatutako itsasgora lerrotik abiatuz, hori litzatekeela kostaldean legedia behar bezala aplikatetik etorritako neurria. Gozamen ordutegia bat dator orokorrean jende gehien doan ordu tartearekin eta, Legea saiatu egiten denez hondartzaren erabilera publikoa baldintza horietan egiten dela bermatzen, hondartzan erabiltzaile gehien dauden uneak dira benetan saturazio arazo handienak planteatzen dituztenak.

3. Kasuan kasuko baimenen eraginetarako, KAren 111. artikulua da aplikatu beharrekoa. Artikulu horrek zera dio:

4.

*“1. Las autorizaciones cuyo objeto sea la explotación de servicios de temporada en las playas, que sólo requieran instalaciones desmontables, serán otorgadas a los Ayuntamientos que lo soliciten, en la forma que se determina en los apartados siguientes.*





*2. En ningún caso el otorgamiento de estas autorizaciones podrá desnaturalizar el principio del uso público de las playas. (Artículo 53 de la Ley de Costas).*

*3. Durante el primer mes de cada año, el Servicio Periférico de Costas del Ministerio de Medio Ambiente se dirigirá a los Ayuntamientos costeros de su ámbito territorial, fijándose un plazo, que no superará los dos meses, para que soliciten, con carácter preferente, las autorizaciones para la explotación de los servicios de temporada.*

*4. Los Ayuntamientos interesados en la explotación de los referidos servicios, deberán presentar la solicitud de la correspondiente autorización, directamente en el Servicio Periférico de Costas o a través de la Comunidad Autónoma, dentro del plazo establecido anteriormente, acompañada de la propuesta de delimitación de zonas a ocupar por aquéllos, de los planos de las instalaciones y servicios cuya definición así lo requiera y del estudio económico-financiero.*

*5. Otorgada la autorización por el Servicio Periférico de Costas, los Ayuntamientos, previo abono del canon de ocupación correspondiente, podrán proceder a su explotación, por sí o por terceros....”*

Bestalde, Udalak, horrelako instalazioak esleitzen dituztenean, Toki Entitateen Ondasunen Araudira atxikita daude (ekainaren 13ko 1372/1986 ED). Araudi horrek zozketa finkatzen du jabari publikoko horrelako ondasunak baimentzeko baliabide gisa, betiere, eman beharreko kopurua mugatzea beharrezkoa den kasuan eta onuradun izan daitezkeen guztiak baldintza berdinak bete behar badituzte (77.2 artikulua). Zentzu berdineko adierazpena egiten du Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92.1 artikulua. Horrek oinarritzko izaera du eta, beraz, toki administrazioei aplikatzen zaie.

5. Udalak aurkeztutako dokumentazioa eta indarrean dagoen legedia ikusita, ondorioztatu egin behar dugu udal administrazioak azken horretan adierazitakoarekin bat etorri jardun duela eta, ondorioz, ez dugu ikusi inolako irregulartasunik administrazio horren jardunean.

Aitzitik, ulergarria eta arrazoizkoa da Udalaren erabakiak inpaktua eduki izana eguzkitakoen erabiltzaileen artean, bai erabakiak edukiko dituen ondorio garrantzitsuengatik, bai erabakia interesdunei jakinarazteko moduagatik. Pertsona horiek hainbat urte daramate eguzkitako zerbitzuaz gozatzen, horren truke prezio publikoa ordainduz. Kostaldee buruzko Araudia 1989ko abendukoa da, eta ez dugu dokumentaziorik topatu bertatik azaltzeko zer arrazoi egon den hogeitau urte eta gero Ministerioko organo eskudunak Udalari eskatzeko hain modu adierazgarrian murriztu dezala eguzkitakoak instala daitezkeen tokia.

Kontuan izan behar dugu ardurapean autonomia mugaturik duten adinekoak eta haurrak zituen familia ugariarentzat, hainbat urtean toki berdinean kokatutako eguzkitakoaren erabilera lagapena lasaitasun eta segurtasun elementua zela, eta





hori indartu egiten zela, gainera, ondoko eguzkitakoen erabiltzaileen artean zeuden harremanengatik. Izan ere, haiek beste elementu erantsi bat eskaintzen zuten pertsona horien zaintza eta arreta lanetan. Gauzak horrela, legearen aplikazioa pixkanaka egin zitekeen, egin dena bezalako murriztapen bortitzak familia ugarentzat izan duen inpaktua baretuz. Edonola ere, egia da baretze faktore bat egon dela, izan ere, eguzkitakoak zozketa bidez esleitu dira urte honetako hondartza denboraldirako baina aurreko ekitaldiko erabiltzaile interesdunen artean. Aitzitik, egia da ere erabiltzaileen interesak Legearen aplikaziotik eratorritako interes orokorraren aurrean makurtzearena harmonia gehiagoko eta nahasmendu gutxiagoko modu batean egin zitekeela.

6. Bestalde, desiragarria zen interesdunekiko informazio eta komunikazio bideak eraginkortasun gehiagokoak izatea. Eguzkitako zerbitzuari dagokion tasa ordaintzeko epea ireki baino aste gutxi batzuk lehenago eduki zuten pertsona hauek erabakiaren jakinarazpena. Parte hartzeko demokrazia batek, Arartekoak eta demokraziaren hobekuntzaren eta garapenaren ideiarekin konpromisoa duten administrazio guztiek heldu beharrekoa, esan nahi du herritarrentzako informazio eta parte-hartze foroak jarriko direla eta, zentzu horretan, Kosten zehaztapenak berehala jakinarazi behar izan ziren. Izan ere, horrek aukera emango zien interesdunei eta herritarrei orokorrean informazioa eskuratzeko eta erabakiaren arrazoitze teknikoak alderatu ahal izateko. Herritarrek beren ekarpenak egiteko aukera eduki behar dute, eta horiek aintzat hartu eta aztertu egin behar ditu Administrazio eskudunak, kasuan kasuko erabakia hartu aurretik. Ingurumen eta Landa eta Itsas Ingurunearen Ministerioaren esku-hartzearen ondorioz Udalak hartutako erabakia interesdunei jakinarazi zitzaizen ustekabe modura eta erabaki aldaezina eta berehala burutzekoa balitz bezala, erabakiaren eraginak jasango zituzten herritarrek esateko zutena entzuteko aukera baztertuz eta neurriaren oinarri izandako dokumentazioa haiei ez emanaz. Horrek guztiak intentsitate handiko erreakzioak eragin ditu, eta horiek saihestea edo, behinik behin, arintzea posible zen gizarte bizikidetzaren, auzotarren lasaitasunaren eta udalaren eta herritarren arteko harremanen kalitatearen onurarako.

Kexaren sustatzailearen erreklamazioaren xedea nahiz aurreko idatz-zatietan azaldutako gogoetak ikusita, hurrengo ondorioak helarazi nahi dizkizugu:

#### Ondorioak

1. Donostiako Udalak emandako dokumentazioa eta indarrean dagoen legedia ikusita (hain zuzen ere Kostaldee buruzko 22/1988 Legea eta hura garatzen duen 1989ko abenduaren 1eko Araudia), ondorioztatu egin behar dugu Administrazio horrek bertan xedatutakoari jarraiki jardun duela eta, beraz, ez dugula irregulartasunik ikusten haren jardunean.
2. Aitzitik, ulergarria eta arrazoizkoa da Udalaren erabakiak inpaktua eduki izana eguzkitakoen erabiltzaileen artean, bai erabakiak edukiko dituen ondorio garrantzitsuengatik, bai erabakia interesdunei jakinarazteko moduagatik. Ez da





arrazoirik topatu azaltzeko ea zergatik hogeit hamar urte igaro direnean Ministerioako organo eskudunak Udalari eskatu egiten dion hain modu adierazgarrian murriztu dezala eguzkitakoak instalatzeko tokia.

3. Ingurumen eta Landa eta Itsas Ingurunearen Ministerioaren esku-hartzearen ondorioz Udalak hartutako erabakia interesdunei jakinarazi zitzaiezen ustekabe modura eta erabaki aldaezina eta berehala burutzekoa balitz bezala, erabakiaren eraginak jasango zituzten herritarrek esateko zutena entzuteko aukera baztertuz eta neurriaren oinarri izandako dokumentazioa haiei ez emanaz. Horrek guztiak intentsitate handiko erreakzioak eragin ditu, eta horiek saihestea edo, behinik behin, arintzea posible zen gizarte bizikidetzaren, auzotarren lasaitasunaren eta udalaren eta herritarren arteko harremanen kalitatearen onurarako.

